

JENDAURREALDIAREN EMAITZA, BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ERREGELAMENDUA ETA FAKTURAZIO BETEBEHARRAK ARAUTZEN DITUEN ERREGELAMENDUA ALDATZEKO FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA PRESTATZEKO PROZESUARENA.

Prozedura hasirik Balio erantsiaren gaineko zergaren erregelamendua aldatzeko foru dekretua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuak onetsia, eta Fakturazio betebeharrak arautzen dituen erregelamendua aldatzeko foru dekretua, apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuak onetsia, eta bete asmoz Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Foru Legearen 133.1 artikulua, Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu zen aipatu Foru Dekretuaren prestaketaren gaineko alde zuzeneko kontsulta, baita iradokizunetarako epea ireki ere 2018ko urtarrilaren 30etik 2018ko otsailaren 20ra arte. Aipatu epean ez zen batere iradokizunik aurkeztu.

Otsailaren 22an, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea betetzeko asmoz, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian paratu zen jendaurrean aipaturiko Foru Dekretua, 2018ko martxoaren 14ra arte. Epe horretan ez zen iradokizunik jaso.

Orobat, zenbait erakunde eta antolakundetara igorri zen Foru Dekretuaren proiektuaren entzuteari buruzko Foru Agindua, proiektuaren berri eman beharrez, bidezko iruditzen zitzaizkien iradokizun eta alegazioak aurkez zitzen.

Eskabideak aurkezteko epea buruturik, eta erantzuna emanda Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberak igorri dituzten alegazioei, bidezko da aipatu Foru Dekretuaren tramitazio administratiboari segida ematea.

Iruñean, 2018ko martxoaren 22an

**ARAUEN GARAPEN ETA AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUKO
ZUZENDARIA**

Javier Zabaleta Zúñiga

Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzua
Servicio de Desarrollo Normativo y Asesoramiento Jurídico